

Teilatuko hontzaren misterioa

Arratsaldea eroria zen Larraitzen. Eskola ondoren, Idoia bazetorren etxerantz, bere lagunekin. Bere portalera iritsi zirenean, elkarri agur esan eta Idoia bere etxean sartu zen. Bertan ama eta anaia txikia zeuden:

-Kaixo ama, kaixo Aimar.

-Zer moduz eskolan Idoia?

-Nahiko ondo, ostirala izanik, ez dugu lan askorik egin. Eta aita?

-Ez da oraindik itzuli. Arraroa da, beti iritsi ohi da goiz...

Idoiaren aita igeltseroa zen. Nahiko gizon serioa zen, baina asko maite zuen bere familia.

-Afaria prest dago! Ez al da etorri aita?- galdetu zuen amak.

-Ez, oraindik ez. Laster etorriko dela espero dut.- esan zuen Idoiak. Eta bai laster ere! Minutu batzuen buruan hantxe agertu zen aita.

-Aspaldiko, gizon! Non egon zara? Ez duzu oso aurpegi ona.- esan zuen Idoiaren amak.

-Ohera noa, bihar arte.- esan zuen kopetilun aitak.

-A ze arraroa! Ez du afaldu ere egin!

Hurrengo astelehenean ere Idoia eskolarantz abiatu zen, bere lagunekin.

-Entzun al duzue hontz misterioitsu horren istorioa?- esan zuen orduan, lagunetako batek.

-Ze istorio da hori?- galdetu zuen beste batek.

-Ez al duzue entzun? Esaten dutenez, herrian norbaitek hil behar duenean, beraren etxeko teilatuan hontz beltz eta beldurgarri bat agertu ohi da. Madarikatuta dagoela esaten dute. Hontz hori gau batean agertu zen, etxe bateko teilatuan, eta hurrengo egunean persona bat gripearekin hilda aurkitu zuten bertan.

-A ze istorio bitxia! Behin baino gehiagotan gertatu izan da?- galdetu zuen, lagun batek.

-Bai, orain dela urte asko gertatzen hasi zela esaten omen dute, eta ezin izan dute jakin zergatik. Harrapatzen eta hiltzen

saiatu dira, baina alferrik.

- "Kasualitate hutsa izango da..." - pentsatu zuen Idoiak.

Eskola ondoren Idoia etxera joan zen, egunero bezalaxe. Iritsi bezain laster, hantxe ikusi zuen, hontz beltz eta beldurgarri bat, berari begira, teilatutik. Idoia, kezkatutik, korrika igo zituen eskailerak, atea zabaldu, eta hantxe zegoen ama, aitaren gelaren atarian. Kezkatua zirudien.

- Zer gertatzen da ama? Zer du aitak? - galdetu zuen kezkatuta Idoiak.

- Medikua etorri da etxera, aita bat-batean oso gaixorik jarri da eta. -

erantzun zuen amak.

Denbora bat igaro ondoren, medikua aitaren gelatik atera, eta amarekin hizketan hasi zen. Une berean, amak negarrari eman zion.

- Zer gertatu da ama?! - galdetu zuen Idoiak izututa.

- Idoia, ezin dugu aita sendatu, hemendik gutxira... - zihoen amak.

- Zer? Esan! Esan! Ez, ezin liteke...

Idoiak, negar batean, etxetik alde egin zuen. Hantxe zegoen, lehen bezala, hontz beltz beldurgarri hura. Idoia bere hankek eramane zuten lekura joan zen. Han izan ezik beste edozein lekutan egon nahi zuen. Azkenean, mendixka baten tontorrean agertu zen. Negar eta negar aritu zen, gelditu gabe. Begiak ireki eta, non eta han, hontz beltza, begiak ireki-irekirik.

- Alde hemendik, hegazti nazkagarria! - esan zuen Idoiak. Baina hantxe geratu zen, ezer gertatu izan ez balitz bezala.

- Alde egiteko esan dizut! - errepikatu zuen Idoiak, baina ez. Hontzak hantxe jarraitu zuen, inor ez balego bezala. Idoia oso minduta zegoen hontz ziztrin batekin solasean aritzeko, eta jaramonik ez egitea erabaki zuen. Baina hontza gehiago gerturatu zen, Idoiaren arreta erakarri nahian bezala.

- Zer nahi duzu niregandik? Nazkatu naiz zurekin! - esan zuen Idoiak, amorruz.

- Lagun diezadazu nahi dut. - esan zuen orduan, ahots batek. Idoiak ikaragarritzko sustoa hartu zuen, eta hontzari harrituta

begiratu zion.

-Antzina sorgin bat nintzen, baina ez nion inori minik ematen. Bakarrik bizi nintzen, eta nire magia, gaixoak sendatzeko erabiltzen nuen. Egun batean, gizon gazte bat etorri zitzaidan laguntza bila. Oso ederra zen, eta nahi gabe ere, elkarrekin maitemindu ginen. Gizonak, ordea, emaztea zuen, eta hau ohartu zenean, nireganako gorrotoaren gorrotoz, azti bati eskatu zion laguntza. Aztiak, emaztearen gorrotoa botila batean sartu, eta esan zion emazteari:

-Sorgin horrek hau edaten baldin badu, betiko hontz bilakatuko da, eta ez dizu gehiago enbarazurik egingo.

Emazteak, ni konturatu gabe ere nire ur edalontzian isuri zuen gorrotoa, eta nik edandakoan honelaxe geratu nintzen. Gainera, pertsonak hiltzen ikusi behar nituen, aztiak madarikazioan sartu bezala, sufri nezan ezin nituelako lagundu. Horregatik hil behar dutenen etxeko teilatuan agertu behar dut, nahitaez.

-Eta zer nahi duzu nik egitea?- galdetu zuen Idoiak.

-Madarikazioa desegiteko kontrakoa egin behar da, hau da, maitasuna edan beharko dut- erantzun zion sorginak.

-Zeinen maitasuna?- galdetu zuen Idoiak.

-Zeurea, Idoia, zeurea. Egoera normalera itzultitakoan zure aita sendatuko dut, baina zure aitarenganako maitasuna edan beharko dut.- erantzun zion sorginak.

-Ongi da, baina zeinek bueltaraziko zaitu egoera normalera?- galdetu zuen Idoiak.

-Ezagutzen dut azti bat, hemen inguruetan bizi dena. Hark egingo du egin beharrekoa.- erantzun zuen orduan, sorginak. Han abiatu ziren, Idoia eta hontza, mendirantz. Tarte batean ibiltzen aritu ondoren, kobazulo handi baten atarira iritsi ziren:

-Hementxe bizi da aztia, sar gaitezen.- esan zuen sorginak. Eta halaxe egin zuten. Kobazuloan barrena sartu ziren, kontu handiz. Dena ilun zegoen, baina han, kobazulo barreanean, argi izpi bat ikusi zuten. Aurrera egin eta, han zegoen aztia, aulki zahar batean eserita, liburu zahar eta potolo bat irakurtzen. Bere ondoan mahaitxo bat zuen, eta mahaiaren gainean kandela

bat, baita liburu zahar asko ere. Aztia oso zaharra zen, eta gaizto itxura zuen. Begi beltzak zituen eta ilea sorbaldetaraino iristen zitzaion. Bizarra ere oso luzea zuen eta bere jantziak oso zaharrak ziren.

Bisitarien presentziaz jabetu zenean esan zuen:

-Zer nahi duzue? Ez dut bisitaririk onartzen, alde hemendik!

-Laguntza eske etorri gara, oso larria da.- esan zuen orduan Idoiak.

Honek gertatutakoa azaldu zion aztiari, baita euren asmoa ere.

-Ongi da, lagunduko dizuet- esan zuen aztiak, berehala.

Mahai gaineko liburu bat hartu, eta hau ikuskatzen hasi zen.

Denbora bat igarotakoan bista altxatu eta esan zuen:

-Hori egiteko dena dut, osagai bat izan ezik.

-Ze osagai?- galdetu zuen larriturik Idoiak.

-Dinosauro hortza- erantzun zuen aztiak.

-Eta non aurkituko dugu ba, dinosaurio hortza?- galdetu zuen Idoiak.

-Bakarrik toki bat dago dinosaurio hortza dagoena, eta ez dago oso urrun. Labirintoaren koba da.- esan zuen aztiak.

-Labirintoaren koba?- galdetu zuen Idoiak.

-Bai, labirinto bat dago koba barrenean, eta zeharkatuz, dinosaurio hortza eskuratu daiteke. Baina hitz sekretu bat osatu beharra dago labirintotik atera ahal izateko. Hitz okerra osatuz gero ezingo zarete gehiago atera. " Galderan" dago gakoa, horixe besterik ez dut entzun. Kontuz ibili, ez du inork lortu handik irtetea.

Hau entzunda, abiatu ziren, Idoia eta hortza, kobarantz.

Ibilaldi luze baten ondoren, ate baten aurrean agertu ziren.

Ateak oso gogorra zirudien, eta erdi-erdian karratu formako ispilu antzeko bat zuen. Gerturatu orduko, ispiluan zerbait idatzia agertu zen:

*"Ez dakizu zer egin
Ezin duzu ezer egin
Hau bai min*

*Galdera hau erantzunez
Ez egon berriro minez:*

*Zeure barnean daude baina ez dakizu zergatik
Zeure bihotzak dauzka baina ez dakizu zergatik*

*Ezin dituzu alendu
baina bai txukundu
Ezin dituzu ikusi
baina bai nahasi"*

Idoiak ez zekien zer zen, baina deszifratzeko denborarik gabe atea beraren aurrean ireki zen, korridore luze bat agertaraziz. Idoia eta sorgina, korridorean barrena abiatu ziren, eta bidegurutze batekin topo egin zuten. Hiru bide desberdin zeuden, eta hauetako bakoitzaren hasieran hizki bat, lurrian. Bidegurutze erdian ere bazegoen mezu bat idatzita:

"Egin kasu zeure bihotzari, ez garunari."

-Zer esan nahiko ote du horrek?- pentsatu zuen Idoiak. Urduri zegoen, eta huts egiten bazuen, zer? Hiru hizki zeuden: S, M, eta G. Horietako bat izan behar zuen hitzaren lehen hizkia.

-S aukeratuko dut.- esan zuen bat-batean, Idoiak.

-Baina, zergatik S?- galdetu zuen sorginak.

Bihozkada bat izan dut, eta hor bihotzari kasu egiteko esaten du.- erantzun zuen Idoiak.

Eta halaxe egin zuten, S bidetik joan ziren. Metro batzuk egin eta beste bidegurutze batekin egin zuten topo. Bertan hauxe jartzen zuen:

"Egunero gertatzen dira, egunero bezala urtero, eta urtero bezala..."

Halaxe bukatzen zen. Zer ote zen?

-Eguna, urtea eta hilabetea! Urteak hamabi hilabete ditu, beraz hitzak hamabi hizki eduki behar ditu!- konturatu zen Idoia. Pentsatutako hitz askok ez zuten balio. Idoiak hitz batean pentsatzen zuen, baina ez zuen arrisku asko hartu nahi.

Azkenean:

-Bai, E, U eta Otik E aukeratuko dut.- arriskatu zen Idoia. E bidea hartu zuten, beraz "SE" zen osaturik zeukaten zatia. Pixkanaka, azkenean iritsi ziren hirugarren bidegurutzera.:

"Maitasuna gu guztiok osatzen gaituen gauza da, baita gorrotoa edo gosea ere. Honezkero jakin beharko zenuke zertaz hari naizen."

-Bai, badakit zer den!- esan zuen bat-batean Idoiak.

-Zer da ba?!-- galdetu zuen harriturik sorginak.

-Sentimenduak! Sentimenduak da hitz sekretua!-- erantzun zuen pozik Idoiak.

Horrela, hizkiz hizki hitza osatu, eta hantxe aurkitu zuten, harrizko atril antzeko baten gainean, dinosaurio hortz handia. Idoiak berehala hartu zuen hortza, eta poltsatxo batean gorde zuen. Atzeko aldean zegoen ate ezkutu batetik atera ziren, eta aztiaren kobazulora itzuli ziren. Honek, bere magia baliatuz, dinosaurio hortzaren laguntzaz Idoiaren maitasuna xurgatu, eta botila batean sartu zuen, likido bihurturik. Ondoren sorginari eman zioten, edan zezan. Edan zuen sorginak, gustura asko, eta bat-batean hortza emakume argal bat bilakatu zen. Neskatxa oso ederra zen, begi berdeak zituen, esmeralda kolorekoak, eta ile kizkurra eta beltz beltza. Soineko zuri zahar bat zuen soinean, eta zapata txiki eta garbiak. Neskatxa, aztiak inguru hartan zuen ispilu batean begiratu zen, eta hunkiturik, negarrez hasi zen.

-Mila esker Idoia, zu gabe ez nuen inoiz lortuko, maitasun oso handia behar baita egin duguna egiteko...- eskertu zuen sorginak, malko artean.

-Nire aita salbatzen baduzu, bakean egongo gara.- mintzatu zen Idoia.

Gau hartan, denak lo zeudenean, Idoiak atea zabaldu zion sorginari, kontu handiz. Biak aitaren gelan sartu ziren, soinurik ez egiten ahalegindu ziren. Aita lo zegoen bere ohean. Ama ondoko aulki batean zegoen, egunkaria eskutan zuela, lo. Sorginak, bere poltsa atera eta osagai batzuk nahastuz sendagai bat egin zuen.

-Zure aitag hau edaten badu, berehala sendatuko da, ziur egon.- esan zuen sorginak.

-Mila esker, nire aita salbatu duzu, ez dakit nola eskertu...- esan zion Idoiak sorginari.

-Ez, zu salbatu nauzu ni, neuk eman behar dizkizut eskerrak.- erantzun zion sorginak.

Idoia agurtu, eta joan egin zen, herriko kale ilun eta ixiletan barrena.

Hurrengo egunean, aita esnatu bezain laster, Idoiak esan zion:

-Edan ezazu hau aita, on egingo dizu eta.

Aitag halaxe egin zuen. Minutu batzuen buruan aita hobeto sentitzen zen, eta Idoiari honela mintzatu zitzaion, besarkada bat emanez:

-Sekula ez naiz hain ondo sentitu, bihotzez eskertzen dizut, baina, zer da eman didazun hori?

-Sekretua da...Axola duena da zu onik zaudela.- erantzun zion Idoiak, hunkiturik.

Arratsaldean medikua etorri zen etxera, eta oso harriturik geratu zen aitaren hobekuntza ikusirik.

Idoia oso pozik zegoen, eta bere barrenean gorde zuen, lagun berezi baten oroitzapena.